




## LLACH-LABOA

## LABOA-LLACH



Pare bat egun lehenago, Mikis Theodorakis izana zen Donostiako Polideportiboan, eta nahiko jende gutxi. Pena arraioa, esaten genion geure buruari. Izan ere, Theodorakis-en saioak merzi zuen entzule gehiegirik. Baiña gure gazteri progresista, batzutan ez da jabetzen. Jende iraultzaileen artean iraultzailearen "ondak" ez dira, dirudienez, "a ratos" baizik iristen Parte Zaharreko taberna-eliza sakratuetara. Gero, txaloak ere, Chile aipatzen zenean eta: Grezian ez da dirudienez, koronelik inoiz izan.

Eta hori ikusirik, beldur pixka bat genuen astelehenez ere ez ote zen jenderik bilduko. Baina ez. Alderantziz, jende gehiegi, gehiegitxo, aukeran. Antolatzaileek anka sartu zuten; bestetik, eta ohizko humanismo bihotz-zabalari amore emanez, Polideportiboko ateak sarrerarik ez zutenentzat ordu erdi aurretik zabaldu zituzten. Eta orduan, jakiña, sarrera zuen zenbait jende sartzerik ez. "Hango tiruak eta lañuak, han ziraden kañonazuak". Lehenbizi, "queremos oir"; gerotxoago, "queremos ver". Zai geunden "queremos joder la manta" noiz entzungo; baiña ez, hori implizitoki ezaririk zegoen.

Batzuk, kalefazioaren tuboen gainera ere igo ziren, beren buruak ez ezik azpian zeudenenak ere arriskuan jarritz. Populoaren eskubideak ororen gainetik; atezin gizarajoa ere ankapean erabili omen zuten. Mundu guztiak dakien bezala, sarrera eskatzen duten atezaiñak ere "represoreak" dira. Tócate los...

Baiña folklore guzti hori ahaztuz, esan behar da benetako arreta zegoela Llach eta Laboa entzuteko, ikusteko eta sentitzeko. Batetik, Llach-ek Euskal Herriari etorri ahal izateko egin behar izan duen bidaia, urtetan zehar, Itaca-koa baiño luzeagoa izan baita; bestetik, Laboaren ibilbide esperesiboak merezigarri egiten baitu berarenentzutera joatea, eta zer esanik ez urte beteko geldunearen ondoren.

Laboa eta Llach-ek kantaldi ongi neurtua eta ekilibritua eskeini ziguten, bi denboraz, berdin egituraz eta reper-

torioz ere. Laboa hasi zen. Zehatz eta zuhur. Laboa ez da kontzesioak egiten dituzten horietakoa. Barnetik aritzen da, barrura begira, sentitzen duen hura adierazi nahirik. Batzutan esan izan da hobe lukeela Laboak espektakularragoa izan, "teatreroa"; ezezkona nago. Laboa espresionista bat da, bere zailtasun eta arrisku guztiakin, eta inoiz eta ezerezi amore ematen ez diolako da, hain zuzen, estimagarri eta estimatua.

Hala ere, ohar bat egin nahi nioke. Mikel, bihotzeko Mikeltxo: zergatik atara kantatzera barrabillak zintzurtean ditukela? Ez dik merezi, motel. Horretan gabiltzanok bazekiagu zer nolako beldurra pastzen den jendearen aurrera atera behar den bakoitzean. Baiña pentsazak beldur hori ez duela inoiz estimatzen. Beldurra, entzuleak izan behar likek. Ni entzule naizenean, beldurra pasatzen diat beintzat. Entzuleak, azken finean, arkume izan nahi dik; etzakela otso bihur. Ez hadila hire nerbiosismoaz besterik taula gainera irten. Hik egiten dukana garrantzitsuegia duk beldurraren prezioz hipotekatzeko. Bazekiat ez didakela kasorik egingo; ezin nahi ta ere. Baiña oroit hadi Sartre-ren teoriak. Hel hakiok zezanari adarretatik, eta ikusiko dul beldurra nola baretzen zaiken.

Oso interesgarria izan zen Laboaren "Komunikazio-inkomunikazio" lana. Argi joko egoki batek bere keinuak adierazgarriago egiten zituelarik, espresio-mailan sekulan parekorik eta kidekorik Euskal Herrian izan ez duen saio batetara libratu zitzaigun Mikel. Hizkera logikoaren hausketa konsziente-pekumunduen molde liberagarri bezala erabiltzen saiatuz, milla sujerentzia eta sujetoz beteriko espresaketa batetan murgildu zen. Murgildu ginduen. Ez da oraingoa Mikelen ahalegin hori; berak adierazi zuen bezala, "Lekeitio 5" liteke bere saioa, orain arterainoko serie horren maila gorakoan bezala.

Kantatu zituen beste kantetatik (ez gehiegi), bat bazen doinuaz oso ongi taxutua, berrietatik bat, alegia; Bertolt

Brecht-en "langille bat liburu baten aurrean" izenekoa. Hala ere, hitz aldetik ulergaitz xamarra egin zitzaidan; badaikit zail dela poema hori era ulerterrez batetan itzultzen. Itzulpena ona zen, oso ona: baiña poema bera da euskaraz kantatzeko zaila.

Llach-ek oso ongi kantatu zuen. Ez zuen gauza ezezagunik kantatu, baiña kantatu zuena oso ongi, indartsu, dramatikotasun haundiz. Zenbait kanta intimista kantatzeko ausardia ere izan zuen, horrela "Que tinguem sort"; ez zen erraza giro zaratatsu hartan, baiña lortu zuen. Kanta ezagun, oso ezagunez kanpo (L'estaca, La gallineta, etabr), Viatge a Itaca" eta "Campanades a mort" ere kantatu zituen. Ene eritzi, "Viatge a Itaca" -ren lehen zatia ez zuen kantatu gabe utzi behar, oso ederra baita. "Campanades a mort" aldiz, osorik kantatu zuen. Llach-ek abots aldetik zer nolako fakultateak dituen jabetu ahal izateko, muestra egokia izan zen "Campanades"-en azken zatia, diskoan baritonoak kantatzen duena. Lehen aldikoz kantatzen omen zuen berak kantaldi batetan zati hori, horrela esan zigun.

Llach musiko on eta kantari bikain bat da; bere abotsak registro ia guztiak ematen ditu, eta oso ongi modulatu du. Oso espresiboa da. Bestetik, musikari onak ditu laguntzaile. Profesionalak, eta berarekin lanean aspalditik ari direnak. Pena izan zen sonido aldetik oreka egokirik ez lortu ahal izatea. Horrela, Laura-k jotzen duen gitarra akustikoa, kanta askotan oso garrantzitsua, ez zen ia batere entzuten; orso hots neurri guttian jarrikeri omen zeukaten, akoplazteko beldurrez. Pianoaren hotsa ere nahiko irregularra zen; batzutan ongi entzuten zen, besteetan ia batere ez. Harri-garria, profesional mailako jende artean. Polideportiboa sonorizatzea ez baita hain zail.

Donostiako nahasketa bazter utziz, oso antolaketa ona EGIN-ek lortu duena. Hego Euskadiko lau hiriburuetan. Horrelako inizatiba gehiago ongarririk litzateke.

XABIER LETL

ZERUKO ARGIA/29

→ ez zen selditu!